

IRAURGI BERRITZEN ETA ZESTOAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA AKORDIAREN AURKEZPENA

- PRENTSA-OHARRA -

Data: 2016ko uztailak 8, 13:00etan.

Non: Zestoako Udala, Batzar Areto Nagusia.

Partaideak:

- Javier Zubizarreta, Azkoitiko Alkatea eta Iraurgi Berritzeneko Lehendakaria.
- Eneko Etxeberria, Azpeitiko Alkatea
- Jose Mendizabal, Zestoako Alkatea.
- Aitor Zuzuarregi, Zestoako Udaleko zinegotzia

1

Urola Erdiaren garapenerako sortutako Iraurgi Berritzen eta Zestoako Udalak lankidetzan aritzeko akordioa adostu dute. Akordio horren aurkezpena egin da Zestoako udalean eta bertan izan dira Azkoiti, Azpeiti eta Zesto, hiru herrietako udal ordezkariak.

Iraurgi Berritzenen egitekoa

Javier Zubizarreta, Azkoitiko alkatea eta Iraurgi Berritzeneko Lehendakariak, Iraurgi Berritzenen egitekoa eskualdeko ekonomia sustatzea dela gogorarazi du, berrikuntzaren bidetik eta eskualde mailako promozio politika eta estrategia publikoak bateratuz. Azken helburua, gizartea kohesionatu eta eta herritarren ongizatea hobetzea da. Sustatzaile publikoak Azpeitia eta Azkoitiko udalak izanik ere, esparru pribatuan, Iraurgi Berritzenen eskualdeko enpresa adierazgarrienekin kolaboratzen du, unibertsitateekin, zentro teknologikoekin, eta ikerketarako, berrikuntzarako eta ekintzailetzarako hainbat erakunderekin. Iraurgi Berritzenen lan eremuak dira, hezkuntza, enpresa, enplegua eta prestakuntza, ekintzailetasuna, turismoa, merkataritza eta garapena.

Iraurgi Lantzen, S.A. eta Zestoako Udalaren arteko lankidetzak akordioa.

Iraurgi Lantzen garapen agentzia eta Zestoako Udalaren arteko hartu-emanak aspaldikoak dira, Zestoako Udalak garapen agentziaren hainbat ekimenetan parte hartu izan baitu lehenagotik ere, adibidez turismoaren alorrean. Legealdi honen hasieran, garapen agentziaren beste arlo batzuetan ere parte hartzeko interesa agertu zuen Zestoako Udalak eta horretarako zein aukera zeuden aztertzeari ekin zitzaion. Zestoako Udalak, elkarlanerako eskaera formala egin ondoren (2016/05/31ean), Iraurgi Lantzeneko Administrazio Kontseiluak, 2016ko ekainaren 7an egindako bilkuran, lankidetzarako eskaerari baiezkoa emateko erabakia, aho batez hartu zuen. Iraurgi Lantzen S.A.ko Administrazio Kontseiluaren bileretan, Zestoako 2 udal ordezkariak parte hartuko dute, alderdi politiko bakoitzetik ordezkari batek.

Zestoako eragileei zuzendutako aurkezpen bilerak.

Aurkezpen bilera sektorialak egingo dira: lehena uztailaren 15ean izango da, 12:00etan, enpresetako eragile eta ordezkariak zuzendua; bigarrena, uztailaren 22an, 13:00an, turismo eta merkataritza eragileei zuzendua; eta hirugarrena, irailean egingo da, enpleguaren arlokoa, herritar guztiei eta bereziki langabezia egoeran daudenei zuzendua.

Eskualdea indartu egiten du akordio honek.

2

Eneko Etxeberria Azpeitiko alkatearen esanetan, eskualdeko herri ahalik eta gehien arteko akordioak garrantzitsuak dira. Urola Kostaldetik etorruta, Urola Erdiak duen sarrerako herria Zestoa izanda, Zestoa eta eskualdeko beste herrien arteko elkarlanak berebiziko garrantzia du.

Zestoako eragile sozial eta ekonomikoak aktibatzearen garrantzia

Iraurgi Berritzen eta Zestoako Udalaren arteko lankidetzak akordio hau eskualde osorako eta bereziki Zestoarako probetxugarria izateko, Zestoako eragile sozial eta ekonomikoak aktibatzeak berebiziko garrantzia duela azpimarratu du Aitor Zuzuarregi, Zestoako Udaleko zinegotziak; horretarako, eragile horiek gertutasun bat sentitu eta lankidetzak hau onuragarria izango zaiela ikusi behar dutela adieraziz.

Enplegua eta ekonomia sustatzeko Batzordea sortu du Zestoako Udalak

Zestoako Udalak ilusio eta gogo handiarekin ekiten diola etapa berri honi adierazi du Jose Mendizabal Zestoako alkateak. Lehendabiziko aldiz, sozio-ekonomia arloko batzorde bat abian jarri da Zestoako Udalean eta hiru helburu ditu batzorde horrek:

- 1- Langabezia egoeran dauden herritarrei ahalik eta laguntzarik gehien eskaintzea. Horretarako Iraurgi Berritzenetik eskaintzen diren zerbitzu guztiak erabiliko dira, helburua baita, zerbitzu horiek Zestoako herritarrengana gerturatzea.
- 2- Bigarren helburu nagusia, sustapen ekonomikoa da eta horretarako, ezer baino lehen, herrian ditugun enpresetara hurbildu eta zein egoeratan dauden gertutik ezagutuko da.
- 3- Hirugarren helburua, epe luzeagokoa da; Zestoaren garapen ekonomiko eta soziala hobetzea helburu izango duten udalerrri nahiz eskualde mailako proiektu estrategikoak ere bultzatu nahi dira.

Helburu hauek lortze aldera, Iraurgi Berritzenek daukan urte askotako esperientzia aprobetxatu nahi da eta Zestoako enpresei, Azpeiti eta Azkoitiko enpresetan martxan dauden, eta berrikuntzaren bidetik oso interesgarriak diren esperientziatan parte hartzeko aukera eman nahi zaie.

Zestoan, 2016ko uztailaren 8an.